# Pío Baroja, *Zalacaín el aventurero* (1908):
# El itinerario de Martín Zalacaín por las calles de Estella

# Pío Baroja, *Zalacaín el aventurero (Zalakain abenturazalea)* (1908):
# Martin Zalakainen ibilbidea Lizarrako kaleetan barna




- **A** Primer día / Lehenengo eguna
- **B** Segundo día / Bigarren eguna
- **C** Tercer y cuarto día / Hirugarren eta laugarren eguna
- **D** Quinto día (iniciado con la fuga de la carcel) y sexto día / Bosgarren eguna (kartzelako ihesaldiarekin hasi zena) eta seigarren eguna

KARLISMOAREN MUSEOA
MUSEO DEL CARLISMO

## Pío Baroja, *Zalacaín el aventurero* (*Zalakain abenturazalea*) (1908): Martin Zalakainen ibilbidea Lizarrako kaleetan barna

### Iritsiera eta lehenengo gaua

Martin Zalakainek eta bere lagun Bautistak sei egun igarotzen dituzte Lizarran. Gauez iristen dira hirira eta haien pasaporteak erakusten dizkiete guardiako kabo bati **Errekoleten komentu**tik hurbil. **Santiagoko portalea** zeharkatzen dute, **Kale Nagusia**n sartuz eta Bautista bertako ostatuan geratzen da, baina Zalakain, galdezka, beste ostatu batera doa, Los **Llanoseko pasealeku**ra; bere logela zimitzez josita dago eta ukuilu-usaina du. **Plaza** bisitatu eta gero, bere ostatura bueltatzen da gaua bertan igarotzeko.

### Bigarren eguna

Bigarren egunean, goizean, Baustitarekin **Plaza**n elkartu eta gero, Zalakainek bisita turistiko bat egiten du ‘herri zaharrean’ barna, **Azukrearen zubia** zeharkatzen du, espetxe bihurtutako **Granadako Dukearen jauregia**ren parean geratzen da eta **Lehoiaren iturria**ri begira geratzen da. Ondoren, atzerriko kazetari batekin, harri horizko etxe hori ederrak dituen **Karrika Nagusia**n barna jarraitzen du, baita Larruginen kalean barna ere, ibaira irekitako lantegiak dituena. Gero, **Santo Sepulcro eliza** bisitatzen dute, ‘harrikaden ondorioz sudurrik gabeko santuak’ dituena, **Karrika Nagusi**tik itzultzen dira, azkenean, **Ruako San Pedro**ra igotzeko, eta bertako eskaileretatik Lizarra behatzen dute.

### Hirugarren eta laugarren egunak

Hirugarren eguenean, gauean, Zalakainek eskutitz bat jasotzen du ostatuan, non esaten zaion egunsentian **Puyko baseliz**ara joateko eta hara abiatzen da goizeko lauretan. Hor Erregegaia baselizatik ateratzen ikusten du, bere Estatu Nagusiak inguratua du eta fraide militar batek soldaduak adoretzen ditu. Ondoren, Zalakain **Plaza**ra jaisten da eta, bertan, Bautistarekin biltzen da **San Juan eliza**ren barruan. Aurrerago, bere neska-lagun Catalinarekin geratzen da Errekoleten komentuko hormaren atean eta, gauean **Los Llanos pasealeku**ko estatura itzultzean bi gauzainek atxilotu egiten dute (txistu egiteagatik) eta G**ranadako Dukearen jauregi**ko **espetxe**ra eramaten dute.

### Bosgarren eta seigarren egunak: Lizarratik ihes egitea

Zalakainek gau hori espetxean ematen du eta, biharamunean, afaldu eta gero, leihotik ihes egiten du. Isil-isilik **Ruako kale**ra abiatzen da eta, bi gizon armatuk jarraitzen diotela sumatzen duenez gero, Ruan irekita dagoen ezkaratz batean babes hartzen du eta bertan ematen du gaua, goiko solairubatean ezkutatua. Biharamuneko goizeko bederatzietan, Martin etxeko geletako batean topatzen duen ofizial karlistaren uniformea jantzita irteten da **Ruako kale**ra eta Bautistak **Kale Nagusia**n duen ostaturantz abiatzen da. Hamabietan, Zalakain eta Bautista lando zahar batean **Errekoleten komentu**ra joaten dira eta, bertan, Catalinak jasotzen ditu, eta Ama Nagusiarekin eta komentuko mandatugilearekin batera, eta, Kale Nagusia gurutzatuz, **Azukrearen zubia** eta **San Nikolas kalea** zeharkatzen dituzte **Logroñoko errepide**ra irten arte.

## Pío Baroja, *Zalacaín el aventurero* (1908): El itinerario de Martín Zalacaín por las calles de Estella

### La llegada y la primera noche

Martín Zalacaín y su compañero Bautista pasan seis días en Estella. Llegan a la ciudad de noche y muestran sus pasaportes a un cabo de guardia cerca del **convento de Recoletas**. Atraviesan el **portal de Santiago**, entrando en la **Calle Mayor** en cuya posada se queda Bautista, mientras Zalacaín se dirige, preguntando, a otra posada del **Paseo de Los Llanos**, donde su cuarto, plagado de chinches, huele a cuadra. Después de visitar la **Plaza**, vuelve a su posada a pasar la noche.

### El segundo día

Por la mañana del segundo día, después de encontrarse con Bautista en la **Plaza**, Zalacaín hace una visita turística por el ‘pueblo viejo’, cruzando el **puente del Azucarero**, deteniéndose frente al **Palacio del Duque de Granada**, convertido en cárcel, y contemplando la **Fuente del León** antes de proseguir, ya en compañía de un periodista extranjero, por la Rúa Mayor, con sus hermosas casas de piedra amarilla, y la **Calle de Curtidores**, con sus talleres abiertos al río. Visitan después la **Iglesia de Santo Sepulcro**, con ‘sus santos desnarigados a pedradas’, vuelven por la **Rúa Mayor** para finalmente subir a **San Pedro de la Rúa**, desde cuyas escaleras contemplan Estella.

### El tercer y cuarto día

Por la noche del tercer día, Zalacaín recibe una carta en la posada diciéndole que se presente de madrugada en la **ermita del Puy**, adonde se dirige a las cuatro de la mañana. Allí ve al Pretendiente, rodeado de su Estado Mayor, salir de la ermita y a un fraile castrense arengar a las tropas. Zalacaín luego baja a la **Plaza**, donde se encuentra con Bautista dentro de la Iglesia de San Juan. Más tarde, se da cita con su novia Catalina en la puerta de la tapia del **convento de Recoletas** y, al volver por la noche a su posada en el **Paseo de Los Llanos**, es arrestado por dos serenos (por silbar) y conducido a la **cárcel** en el **Palacio del Duque de Granada**.

### El quinto y sexto día: la fuga de Estella

Zalacaín pasa esa noche en la cárcel y, al día siguiente, después de cenar, se fuga por la ventana. Se dirige sigilosamente por la **Calle de la Rúa** y, sintiéndose seguido por dos hombres armados, se refugia en un portal abierto de la Rúa, donde pasa la noche escondido en una de las plantas superiores. A las nueve de la mañana del día siguiente, Martín se viste con el uniforme de oficial carlista que encuentra en una de las habitaciones de la casa y sale a la **Calle de la Rúa**, dirigiéndose a la posada de Bautista en la **Calle Mayor**. A las doce, Zalacaín y Bautista se trasladan en un landó viejo al **convento de Recoletas**, donde recogen a Catalina, junto con la Monja Superiora y el demandadero del convento, y, atravesando la **Calle Mayor**, cruzan el **puente del Azucarero** y la **Calle de San Nicolás** hasta salir a la **carretera de Logroño**.